

ANAITASUNA

304. zenb.

1975.eko urruiazen 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Gutako bakoitzak, behin baino gehiagotan galdetu dio bere buruari: egoera larri hontan zer egin? Zer egin behar dut? Zer egin genezake? Gure ustetan, orain bizi dugun hau ere holakoetakoa da, larria. Gainera, irakurleak aldizkariaren zenbaki hau eskuratzen duenerako, ez dakigu zernolako girotan murgildurik aurkituko garen.

Guk ere —eta nik neuk orain zeuon aurrean—, dugun egoera kontuan edukita, **zer egin?** galdetzen diogu behin eta berriz geure buruari. Hontan hiru jokabide izan daitezke: iraun, erre, etsi.

ETSI? Jokabiderik erosoena litzateke. Koldarrena ere bai. Zergatik etsi? Esperantzarik gabekoena da etsitzea. Etsituta, ez da deus berririk, ezer handirik eta iraunkorrik eraikitzen.

ERRE? Ekintza gogor batekin, kolpe gotor baten bidez, egoera bat bortxatzea litzateke. Eta, etengabe behartuz, lehertzapena lortzea. Ba dakigu, bai, nork bere buruari eta egoerari «su ematea», aise miretsi egin ohi duela jendeak.

Baina, geure mailan eta geure kasuan, jokaera horri ezin diogu guk eutsi. ANAITASUNAREN zenbaki bakar baten paper piloarekin batera erreko ginateke geu ere.

IRAUN! Irautea erabaki dugu, muga mugan irautea. Aspaldidanik ikasi dugu iraupena estimatzen.

Kazetagintzan ibiliz, etsitzea gure barnearen aurka doa. Erretzea ez dugu eraginkor ikusten. Oraindik ere irautea nahiago izan dugu.

Geure aldizkariaren ahalmenak eta mugak ongi ezagutzen ditugu, eta ba dakigu —hobe ez!— buztinezko zangoak ditugula. Ez guk eta ez zuek ezarritako joko arauak, bestalde, haintzat hartu behar ditugu.

Egoera hontan, bada, eta irautearren, ahal daitekeenaren mugaraino joaten ere ez gara sarritan ausartzen. Eta, beste batzutan, horrialde hontantxe agertu behar zuen editorialarekin bezala, mugak harantzago daudelakoan aurrera goazenean, «geldi hortxe» oihukatzen digute.

Horregatik, irakurleak ulertuko ahal du gure jokabidea! Irautea hautatu badugu, irakurlearen onerako delakoan egin dugu.

Joan Mari TORREALDAY

IRAUN!